

1. ANTOKO PORTUGAL

Musika: IKER GOENAGA

2. ALDATU NAHIAN GEROA

Hitzak eta musika: IKER GOENAGA

Tren geltokira bidean
Kezka batzuk besapean
Barne galderei zalantzei
Ihes egin ezinean

Burdin bideen zoroan
Esna bidaia osoan
Iragandako uneak
Bizi berrituz gogoan

Espetxeko atarian
Urduritasun larrian
Esan gabeko guztiak
Esateko egarrian

Kezkatuen artekoa
Besarkadaren beroa
Bihotz bi ausartu dira
Aldatu nahian geroa

4. UMEA ETA MAPA

Hitzak: JOSEBA SARRIONANDIA

Musika: IKER GOENAGA

Aita esaidazu
Nongoak garen gu
Mapa lurrean zabaldurik
Ez dut konprenitzen oraindik...

Portugal Grezia,
Suitza Errusia...
Ez dut Euskal Herria ikusten
Ez da mapan ere agertzen

Ezin inoiz joan
Beti esperoan
Euskal Herririk ez da aita
Zeure fantasiak dira eta


Humorea duzu
Asmatu baduzu
Euskal Herria delakoa
Urrunaren taminakoa

3. EKAINEKO MAIZEA

Musika: IKER GOENAGA

Isildurik garaiz
Triste geratu naiz
Eta Euskal Herriaren bila
Hasi naiz mapan infantila...

Neuk egin dut negar
Ez nuen egin behar
Mapa gainean naiz tristatu
Hor euria bada barkatu



5. PARIS 2006

Musika: IKER GOENAGA

6. URTEAK

Hitzak: GARTXOT UNSAIN

Musika: IKER GOENAGA

Zoriontasun gardena nuen
Begotartean gordea
Nimiñoena Erraldoia zen
Ta ilunena berdea
Mila galdera, erantzunik ez
Errugabeen legea
Margo haiek gaur harro hauteman
Marrastu dudán bidea
Itxaropenak zein izen duen
Ezin dut jakin ordea

Gizatasuna nola sortzen den
Estututako hatzetik
Gizatasuna nola galtzen den
Urteen laburbidetik
Izan nintzena, gaur ez naizena
Átzerá buelta ezinik
Jasotakoa nola ordaindu?
Ez daukat eman besterik
Oroitzapenek mantentzen naute
Antzerki hontan bizirik

Bizitza hizkuntza arrotza baita
Nola bihurtu gurea
Igarotako pasarte orok
Beti dirudi hobea
Lehen irri haiek lurgorri ziren
Heldutasuna goldea
Egunek nola eraiki duten
Ilezuridun umea!
Nola litzake, betiko balitz
Iraungitasun epea?

7. QUEBEC

Musika: HERRIKOIA/IKER GOENAGA

8. GERTATU BALITZA

Hitzak eta musika: IKER GOENAGA

Amets batean ustekabeen
Gertatu balitza
Ilunaldian zuk ikustea
Hamaika-argi printza

Begiradaren une batean
Gertatu balitza
Ixilunean zuk entzutea
Maitasunezko hitza

Esnatzearen gazi gozoan
Gertatu balitza
Bakaradadean ez entzutea
Maitasunezko hitza
Oharkabeen ez ikustea
Hamaika argi printza
Esnatzearen gazi gozoan
Kolpeka gabiltza

9. ERRAZKIN

Musika: IKER GOENAGA

10. EGUNERO

Hitzak eta musika: IKER GOENAGA

Orain nigandik ain urrun
Zauden honetan
Oroitzapenen argi-itzalak
Zearkatzen ditut
Izan ginenak, izan ez ginenak,
Inoiz izango ez garenak
Nahigabetzen nau, nahigabetzen...
Orain badakit zuk lapurtu zenidala
Eta egunero
Nire buruari galdetzen diot
Bihotzik gabe, noizbait zoriontsu
Izango ote naizen
Egun oro, egunero, egun ero...



11. GOGOETAK

Hitzak eta musika: IKER GOENAGA

Ez dakienak baleki
Mesedetan herria
Ez dakienak baleki
Ai herria
Etorri dela aldaketa
Zer nolako berria
Ez dakienak baleki
Neke erdia

Aholkuaren beharrez
Non ote dut gogoa
Aholkuaren beharrez
Non gogoa
Kargu hartuko didazula
Horra nire susmoa
Aholkuaren beharrez
Zugana noa

Ilargi-bete gorria
Kolpeka bihotzetan
Ilargi-bete gorria
Bihotzetan
Asegabeen erre-mina
Esku zuri hotzetan
Ilargi-bete gorria
Larre motzetan

Besarka nazazun nahi dut
Itolarririk gabe
Besarka nazazun nahi dut
Ito gabe
Aurrez-aurre parez-pare
Bakoitza bere jabe
Besarka nazazun nahi dut
Gutziz nerabe

12. XAIMA

Musika: IKER GOENAGA

13. ETA EGUNERO DUGO BEZPERA

Hitzak: KOLDO IZAGIRRE
Musika: IKER GOENAGA

Azkenak baitakar hurrena
Makurrak baitakar argia
Hurrenak baitakar beldurra
Hasteak baitakar zuzena
Zubiak baitakar larria
Urratsak baitakar mentura

Osoak baitakar erdia
Buruak baitakar zalantza
Beroak baitakar lausoa
Okerrak baitakar egia
Zalantzak baitakar arnasa
Barruak baitakar auzoa

Bihotzak baitakar ikara
Nekeak baitakar asma
Gordinak baitakar heldua
Ikarak baitakar itzala
Usteak baitakar harroa
Eskuak baitakar eskua

Helduko dela
Helduko dela
Eta egunero dugu bezpera